

TXIMISTA XAKEKO NAFARROAKO TALDEKAKO TXAPELKETA.

(2018ko ekainaren 9an, Iruñean).

Iruñeko Printzearen Gotorleku gazteentzako egoitzan jokatu zen larunbat arratsaldean. Itzuli bateko Liga sistema erabili zen. 5 minutuko partidak izan ziren. Lau mahaitan jokatu ziren neurketak.

lazko txapelketarekin alderatuta, nabarmen hazi zen talde kopurua: Sei gehiago.

AZKENEKO SAILKAPENA.

1) Donibane Kirol Elkartea A (Iruñea) – 47'5 puntu.

2) Antsoain A – 44'5 puntu.

3) Oberena A (Iruñea) – 43'5 puntu.

4) Orvina (Iruñea) – 39 puntu.

5) Mikel Gurea A (Burlata) – 34'5 puntu.

6) Oberena D (Iruñea) – 32'5 puntu.

7) Oberena B (Iruñea) – 30 puntu.

8) Mikel Gurea B (Burlata) – 27'5 puntu.

9) Oberena C (Iruñea) – 27'5 puntu.

10) Antsoain B – 27 puntu.

11) Donibane Kirol Elkartea B (Iruñea) – 26 puntu.

12) Mikel Gurea C (Burlata) – 13 puntu.

13) San Juan Txikis (Iruñea) – 12'5 puntu.

14) Gazte Berriak (Antsoain) – 12 puntu.

15) Mikel Gurea D (Burlata) – 3 puntu.

DONIBANE KIROL ELKARTEAREN LAUGARREN GARAIPENA, ZAZPI URTEETAN

Talde asko eta kalitate ez gutxi txapelketa honetan. Taldeak ongi hornituak joan ziren tituluaren bila. Garaipenak benetako balioa izan zuen, alde horretatik. Ez zen batere erraza.

Roi Reinaldo Castiñeira, Luis David Jimenez Almeida, Borja Zamarbide Iñarrea eta Jose Manuel Lopez Orois jokalariek lau indartsua osatzen dute. 56 puntuetatik 47'5 eraman zituzten. 8'5 besterik ez zuten utzi bidean.

Antsoain A taldeak ere maisu handi bat zuen buru: Mikel Huerga Leache. Bere lana eta gainontzekoenak bigarren postura eraman zuten. Aitor Huarte Zozaya, Andres Malon Insausti eta Alvaro Garisoain Ardanaz izan ziren maisuaren lana osatu zutenak. Antsoain taldea sortu zenean, etorkizun ona aurreikusten zitzaion. Bere garapena azkarra eta nabarmena izan da. Denbora gutxi behar izan du Nafarroako elitean dagoela erakusteko. Hiru puntu besterik ez ziren izan Antsoain A-ren eta Donibane A talde oso indartsuaren artean.

Maisurik gabe, baina Nafarroan maila oso ona erakutsi duten jokalariek ezagunekin agertu zen Oberena A. Liderra 4 puntura geratu zitzaizen Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jesus Javier Cortes Bueno, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz eta Javier Habans Aguerrea jokalariei. Oberena itzalita ibili da urte batzuetan, baina berpiztuta dirudi orain.

Orvinaren laugarren postua ere ez zen txarra izan, ia figurarik gabe aritu baitzen. Bere jokalariek beti lehiakorrak dira eta Oberenatik 4'5 puntura geratu zen. Ardua hori Ignacio Soriano Ascaso, Adolfo Ruiz Anton, Esteban Garraza Obaldia eta Mikel Ochoa Aldaz jokalariek hartu zuten.

Mikel Gurea A taldearen jarduna ez zen hain distiratsua izan. Bosgarren postua, hein batean, porrot moduan har daiteke. Orvinatik 4'5 puntura geratu zen. Odei Lerendegui Lasa, Aitor Martinez Ayesa, Pedro Forjan Jimenez, Angel Vilchez Gonzalez eta Alex Pedchenko Zhilkov jokalariek oso talde sendoa osatzen dute. Gehiago egitea espero zitekeen haiengandik. Iaz oso talde ezberdina ez zen, txapeldun geratu zenean.

Estatistikei begiratuta, azkeneko zazpi urteetan Donibane taldearen laugarren garaipena izan da. Orvina eta Oberenaren parean jarri da, azken urteetako historialean.

AZKENEKO TXAPELKETETAKO HISTORIA.

2002-03ko denboraldian: **Orvina A**, txapeldun; **Orvina B**, bigarren; **Donibane Kirol Elkartea**, hirugarren.

2003-04ko denboraldian: **Oberena A**, txapeldun; **Orvina**, bigarren; **Oberena B**, hirugarren.

2004-05eko denboraldian: **Alekhine A**, txapeldun; **Mikel Gurea B**, bigarren; **Orvina**, hirugarren.

2005-06ko denboraldian: **Oberena A**, txapeldun; **Orvina B**, bigarren; **Orvina A**, hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Orvina**, txapeldun; **Mikel Gurea Fon-Clima**, bigarren; **Donibane Kirol Elkartea**, hirugarren.

2007-08ko denboraldian: **Oberena**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Nuevo Casino**, hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Orvina A**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Gazte Berriak A**, hirugarren.

2010-11ko denboraldian: **Orvina**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Gazte Berriak A**, hirugarren.

2011-12ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkartea (Roi Reinaldo Castiñeira, Iñigo Martinez Martin, Ivan Tetimov, Carlos Perez Marchal, Miguel Argaya Urdaniz, Javier Perez Marchal, Daniel Lizarraga Rivas eta Eduardo Tuñon Gonzalo)**, txapeldun; **Santa Ana A**, bigarren; **Orvina**, hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkartea A (Roi Reinaldo Castiñeira, Iñigo Martinez Martin, Miguel Argaya Urdaniz, Carlos Perez Marchal, Kiko Sanchez Salazar eta Daniel Lizarraga Rivas)**, txapeldun; **Orvina A**, bigarren; **Mikel Gurea A**, hirugarren.

2013-14ko denboraldian: **Mikel Gurea (David Arjol Etxeberria, Aitor Martinez Ayesa, Iker Irañeta Unzue eta Aritz Idiazabal Troyas)**, txapeldun; **Orvina**, bigarren; **Santa Ana A**, hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Oberena (Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz, Cesareo Arrese-Igor Sanchez eta Emilio Duran Fernandez)**, txapeldun; **Donibane Kirol Elkarte A**, bigarren; **Paz de Ziganda**, hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A (Roi Reinaldo Castiñeira, Jesus Carlos Sanchez Carayol, Iker Irañeta Unzue, Diego Blanco De la Rosa eta Daniel Lizarraga Rivas)**, txapeldun; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez, Cesar Arrese-Igor Sanchez, Mikel Garjon Modrego eta Mariano De Pablos Fernandez)**, bigarren; **Mikel Gurea A (Aitor Martinez Ayesa, Pedro Forjan Jimenez, Iñaki Esparza Martinez, Odei Lerendegui Lasas, eta Alex Pedchenko)**, hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Mikel Gurea A (Aitor Martinez Ayesa, Aritz Mancha Otano, Pedro Forjan Jimenez eta Angel Vilchez Gonzalez)**, txapeldun; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jesus Javier Cortes Bueno, Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez eta Cesareo Arrese-Igor Sanchez)**, bigarren; **Orvina (Mikel Ortega Lopez, Gustavo Jimenez Martin, Mikel Ochoa Aldaz, Juan Sanciñena Arpide eta Adolfo Ruiz Anton)**, hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A (Roi Reinaldo Castiñeira, Luis David Jimenez Almeida, Borja Zamarbide Iñarra eta Jose Manuel Lopez Orois)**, txapeldun; **Antsoain A (Mikel Huerga Leache, Aitor Huarte Zozaya, Andres Malon Insausti eta Alvaro Garisoain Ardanaz)**, bigarren; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jesus Javier Cortes Bueno, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz eta Javier Habans Aguerrea)**, hirugarren.

PALMARESA, 2002-03 DENBORALDITIK.

- 1) **Donibane Kirol Elkarte A (Iruñea) – 4 titulu.**
- 2) **Orvina (Iruñea) – 4 titulu.**
- 3) **Oberena (Iruñea) – 4 titulu.**
- 4) **Mikel Gurea (Burlata) – 2 titulu.**
- 5) **Alekhine (Lizarra) – Titulu bat.**

2018-06-09.

Iturria: “<https://info64.org/team/cto-navarro-relampago-por-equipos/standings>” webgunea.